

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 148/2023 Erabakia, martxoaren 28koa. Onestea teknologia kuantikoen (Araba Quantum) ikerketa, garapena eta erabilera sustatzeko laguntzen deialdia 2023ko ekitaldirako

Teknologia kuantikoak eskala mikroskopikoan dauden propietateak aprobetxatzen saiatzen dira. Eskala horretan, ez dute lege newtondarrek funtzionatzen, lege kuantikoek baizik. Eskala subatomikoan gertatzen diren fenomeno horiei esker, gizartean eragin handia duten teknologia oso disruptiboak sortu ahal izango dira. Teknologia kuantikoez ari garenean, sensorizazioaz eta metrologia kuantikoez, komunikazio kuantikoez, eta konputazio eta simulazio kuantikoaz ari gara.

Azken urteotan fisika kuantikoan izan diren aurrerapenek bizkortzen ari den garapen teknologikoa ekarri dute berekin, eta orain urte gutxi batzuk ezinezkoak ziruditen aurrerapenak lortu dira arlo horretan.

Teknologia kuantikoek paradigma aldaketa ekarriko dute eremu askotan. Konputazio kuantikoari esker, orain arte konponezinak ziren arazoak konpondu ahal izango dira, eta optimizazioa, adimen artifizialaren bilakaera edo datu kopuru handien erabilera ahalbidetuko ditu. Teknologia kuantikoei esker, aplikazio ugari sortuko dira ia sektore guztietan: zibersegurtasuna, komunikazioak eta enkriptatzea, automozioa, aeronautika, osasuna/farma, logistika, etab.

Etorkizuneko teknologia horietan lider izateko edo atzean ez geratzeko, inbertsio handiak egiten ari dira herrialde garatu guztietan; nazioarteko mugimendu bat dago teknologia horiek esploratzeko, ikertzeko, garatzeko, esperimendatzeko eta ustiatzeko. Euskadin ere teknologia horien aldeko apustua egin da. Hala, 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak teknologia kuantikoak oinarritzeko teknologia gisa txertatzen ditu, eta Euskadi Next Euskadiren berreskuratze, eraldaketa eta erresilientziarako programan eta Hezkuntza Sailaren IKUR 2030 estrategian, teknologia kuantikoak dira aukeratutako arloetako bat.

Oraindik teknologia hasiberriak diren arren, Arabako Foru Aldundiak teknologia kuantikoak lurraldean sartzea bultzatu nahi du. Horregatik, zentro teknologikoak edota unibertsitate edo enpresetako ikerketako unitateak buru dituzten I+G proiektuak garatzea bultzatu nahi du, baita enpresek teknologia horien azterketan eta erabileran parte hartzea ere.

Horretarako, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileen esparruan, eta publikotasun, lehia, objektibotasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioak ahalik eta gehien zabaltzeko eta betetzeko, erabaki honen bidez, teknologia kuantikoen ikerketa eta garapena sustatzeko laguntzen nahitaezko deialdia (Araba Quantum) ezartzen da 2023ko ekitaldirako.

Horrenbestez, lehenengo diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea teknologia kuantikoen ikerketa, garapena eta erabilera sustatzeko laguntzen deialdi publikoa (Araba Quantum) 2023ko ekitaldirako. Erabaki honi erantsita doa.

Bigarrena. Honako hauek arautuko dute deialdi hau: norgehiagoka bidez ematen diren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriek (Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuak onetsiak) eta erabaki honen eranskinean ezarritakoek.

Hirugarrena. Erabaki honen bidez araututako dirulaguntzak partida hauen kontura ordainduko dira:

– “15101. G/433152/78100151 Araba Quantum ESAL 2023”; 200.000,00 euro 2023ko ekitaldirako eta 200.000,00 euro 2024ko konpromiso-krediturako.

– “15101. G/433152/77000156 Araba Quantum Empresas 2023”; 100.000,00 euro 2023ko ekitaldirako, eta 100.000,00 euro 2024ko konpromiso-krediturako.

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileen 7.2. oinarria betez, saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko partida bakoitzari esleitutako funtsak birbanatzeko, balioespen batzordeak hala proposatuta. Horretarako, ebazpena emango du, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

Deialdiaren funtzionamendu egokia bermatzeko, gehieneko zenbateko osoaren ehuneko 30erainoko kopuru gehigarria ezarri da, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauko 21.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Laugarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Bosgarrena. Bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikularekin, administrazio bidea bukatzen duen ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, Foru Gobernu Kontseiluan ebazpena argitaratu ondorengo egunetik hasita hilabeteko epean, edo zuzenean aurkaratu ahal izango da, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita bi hilabeteko epean, eskumenak dituen jurisdikzioaren aurrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 28a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehenengo diputatu nagusiordea era Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren diputatua

MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaria

JAVIER HERNANDO GARCÍA

ERANSKINA

**TEKNOLOGIA KUANTIKOEN IKERKETA, GARAPENA ETA ERABILERA SUSTATZEKO
LAGUNTZEN DEIALDIA (ARABA QUANTUM) 2023KO EKITALDIRAKO****1. artikulua. Helburua**

Deialdi honetako laguntzen xedea da teknologia kuantikoen garapena bultzatzea, ikerketa unitateetako I+G proiektuei lagunduz, eta Arabako enpresa sareak teknologia kuantikoak erabiltzeko esperientzietan aurrera egitea, dirulaguntzak norgehiagoka-araubidearen arabera emanaz.

2. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehieneko zenbateko osoa

Erabaki honen bidez araututako dirulaguntzak partida hauen kontura ordainduko dira:

– “15101. G/433152/78100151 Araba Quantum ESAL 2023”, 200.000,00 euro 2023ko ekitaldirako eta 200.000,00 euro 2024ko konpromiso-krediturako.

– “15101. G/433152/77000156 Araba Quantum Empresas 2023”, 100.000,00 euro 2023ko ekitaldirako, eta 100.000,00 euro 2024ko konpromiso-krediturako.

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileen 7.2. oinarria betez, saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko partida bakoitzari esleitutako funtsak birbanatzeko, balioespen batzordeak hala proposatuta. Horretarako, ebazpena emango du, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

Deialdiaren funtzionamendu egokia bermatzeko, gehieneko zenbateko osoaren ehuneko 30erainoko kopuru gehigarria ezarri da, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauko 21.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1. Deialdi honetan jasotzen diren onurak eskura ditzakete:

a) Enpresak, haien osaera juridikoa edozein dela ere, baldin eta egoitza soziala eta zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan badute edo gutxienez jarduera zentro bat Arabako Lurralde Historikoan badute.

b) Araban jarduera zentroyen bat duten teknologia edota ikerketa zentroak; Araban irakaskuntza unitateren bat duten unibertsitate zentroak, eta egoitza soziala eta zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan duten enpresa fundazioak eta elkarteak eta enpresetako I+G unitateak.

3.2. Dirulaguntzen onuradun izateko, legezko gainerako betekizunak betetzeaz gainera, erakundeek egunean izan beharko dituzte zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik, bai dirulaguntza jasotzeko unean.

Erakunde onuradunak ez badu Gizarte Segurantzako inolako erregimenetan kotizazio kontuaren koderik esleituta, enpresako bazkide guztiek Gizarte Segurantzarekin egunean egon beharko dute.

3.3. Ezin dira onuradun izan sozietate publikoak, ezta erakunde administrazioarenak diren berezko nortasun juridikoko erakundeak ere, Araban irakaskuntza unitateren bat duten unibertsitate zentroak izan ezik (3.1 apartatuan aipatutakoak).

3.4. Halaber, kanpoan geratzen dira ezarritako epearen barruan laguntza lerro honen aurreko deialdietan diruz lagundutako jarduerak egin eta ordaindu izana frogatu ez duten erakunde eskatzaileak, salbu eta Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren iritziz haiek ez egiteko arrazoiak behar beste argudiatu badira.

4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak

Laguntzak honako hauek osorik edo partzialki finantzatzeko erabiliko dira: teknologia kuantikoen arloko I+G proiektuak, hartze roadmapak egitea eta erakundeek gaitasun kuantikoak erabiltzea.

5. artikulua. Aplikazio eremua eta jarduerak egiteko aldia

5.1. Erakunde onuradunek Arabako Lurralde Historikoan ezarri beharko dituzte dirulaguntza jasotzen duten jardueren emaitzak edota bertan egin beharko dituzte jarduera horiek.

5.2. Dirulaguntza jaso dezakete laguntza eskaera aurkeztu ondorengo egunetik 2024ko irailaren 13ra bitartean, hura barne, egiten diren jarduerak eragindako gastuek.

Deskargu ekonomikoan egozten diren fakturen data jarduerak egiteko epearen barruan egon behar da.

6. artikulua. Dirulaguntzaren ehunekoak eta gehieneko zenbatekoa

6.1. Diruz lagundu daitezkeen zenbatekoa eta dirulaguntza erakunde eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera ezarriko dira, kontuan hartuta aurrekontu balioabideak eta deialdi honetan zehaztutako balioespen irizpideak.

6.2. Erakunde eskatzaileak aurkeztutako aurrekontu xehatua edo ondorengo aldaketak erreferentziatzen hartuko dira dirulaguntzaren azken zenbatekoa zehazteko. Zenbateko hori jardueraren azken kostu diruz lagungarriaren ehuneko bat izango da, eta dirulaguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du hasieran esleitutakoa gainditu.

6.3. Ikerketa eta garapen proiektu mota horietarako eman beharreko laguntzek ezingo dute gainditu Europako Batzordearen 651/2014 Erregelamenduaren III. kapituluaren 4. atalean ezarritakoa. Erregelamendu horrek bateragarritzat jotzen ditu zenbait laguntza kategoria barne merkatuarekin, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz (EBAO, L 187, 2014ko ekainaren 26koa). Hona hemen gehieneko zenbateko ehuneko horiek:

- Diruz lagundu daitezkeen kostuen ehuneko 100era arte, funtsezko ikerketarako.
- Diruz lagundu daitezkeen kostuen ehuneko 50era arte, industria ikerketarako.
- Diruz lagundu daitezkeen kostuen ehuneko 25era arte, garapen esperimentalerako.

Industria ikerketarako eta garapen esperimentalerako laguntzen intentsitateak 10 portzentaje puntu handitu ahal izango dira enpresa ertainen kasuan, eta 20 portzentaje puntu enpresa txikien kasuan.

6.4. Gainera, gehieneko hauek ezartzen dira:

– Enpresentzat, diruz lagundu daitezkeen kostuen ehuneko 50, 3.1b) artikuluan jasotako erakunde onuradunekiko lankidetzak kostuak izan ezik, horiek ehuneko 75era iritsi ahal izango baitira.

– 3.1 b) artikuluan jasotako erakunde onuradunak diruz lagundu daitezkeen kostuen ehuneko 100era iritsi ahal izango dira.

– Enpresa bakoitzeko gehieneko dirulaguntza 50.000,00 euro izango da.

– 3.1.b) artikuluko erakunde onuradun bakoitzeko gehieneko dirulaguntza 100.000,00 euro izango da.

6.5. Dirulaguntzek ezin izango dute inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren guztizko kostua.

6.6. Proiektuei dagozkien gastu guztiak hartuko dira diruz laguntzeko modukotzat, eraikinen eta lursailen kostuak eta amortizazio kostuak izan ezik. Hau da:

a) Langileen zuzeneko kostuak: ikertzaileak, teknikariak eta gainerako laguntzaileak, proiektuan aritzen badira.

b) Kuantikan aditua den enpresa kontratatzearen edo 3.1b) artikuluan jasotako erakunde onuradunekin lankidetzan aritzearen kostuak.

- c) Tresnen eta materialen kostuak, proiekturako erabiltzen badira.
- d) Esklusiboki proiektura bideratutako aholkularitza eta zerbitzu kostuak.
- e) Proiektutik zuzenean eratortzen diren materialen, horniduren eta suntsikorren kostuak.
- f) Erakundeko langileek teknologia kuantikoei buruzko prestakuntza jasotzeko kostuak.

6.7. Fakturari aplikatzen zaion Balio Erantsiaren gaineko Zerga ez da diruz lagun daitekeen gastua izango.

6.8. 3.1 b) artikuluan jasotako erakundeek proiektuaren zeharkako kostuak aurkeztu ahal izango dituzte, proiektuari egotz dakizkiokeen gastuak badira baina haien izaera dela-eta ezin badira zuzenean egotzi, ezin direlako banakatu. Gastu horiek ez dira justifikatuko, eta ezingo dute gainditu zentroak proiekturako duen aurrekontu osoaren ehuneko 20.

6.9. Dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko oinarri arautzaileak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren 7.4 artikulua aplikatuz, balioespen batzordeak muga gehigarriak ezarri ahal izango ditu diruz lagun daitekeen aurrekontuaren eta dirulaguntzaren banakako zenbatekoa zehazteko.

7. artikulua. Instrukzioa bideratzeko eskumena duten organoak

7.1. Prozedura Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak bideratuko du.

7.2. Balioespen batzordea honela egongo da osatuta:

– Lehendakaria: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Bokala: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren burua.

– Idazkaria: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuko teknikari bat.

8. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

8.1. Eskabideak aurkezteko epea deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2023ko maiatzaren 31n amaituko da, 14:00etan.

8.2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek telematikoki aurkeztera behartuta daude, egoitza elektronikoen berariazko izapidearen bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/hasiera>), pertsona juridikoak; nortasun juridikorik gabeko erakundeak; elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzan dutenak.

8.3. Eskuragarri jarritako inprimakia bete behar du erakunde eskatzaileak eta informazio hau erantsi:

– Erakunde eskatzaileari eta aurkeztutako jarduera multzoari buruz:

a) Erakundearen eta aurkeztutako berrikuntza jardueren deskripzio memoria, eskaera balioesteko erabiliko dena, deialdi honen 9. artikuluan ezarritako irizpideen arabera. Aurkeztutako berrikuntza jardueren memorian, honako hauek justifikatu beharko dira: kanpoko azpikontratazio gastuen beharra, I+G-ko barne langileen gastuak eta aurrekontuan jasotako ibilgetu inbertsioak.

b) Itxitako azken ekitaldian erregistratutako urteko kontuak, titulartasun errearen adierazpena eta auditoretza txostena, hala badagokio. Urteko kontuak egitera behartuta ez badago, hori justifikatzen duen kausaren frogagiria.

c) Araban alta egoeran dauden langileen ziurtagiria, laguntza eskaera aurkeztu zen egunari dagokiona, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana.

– Aurkeztutako jarduera bakoitzari buruz:

a) Kanpoko hornitzaileen 10.000,00 eurotik gorako eskaintzen fotokopia.

b) Hala badagokio, deialdi honetan aurkeztutako jarduera berberak egiteko eskatutako beste laguntza batzuk/beste laguntza batzuen ebazpenak.

8.4. Erakunde eskatzaileak baliozkotzat joko ditu Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzak laguntzaren eskaeran eskaeraren arduradun gisa identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiak. Programaren onuradun moduan agertzen den enpresaren posta elektronikoko kontua soilik onartuko da harremanetarako kontu gisa.

8.5. Dirulaguntza eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea izapideak egiten dituen organoak zuzenean eskuratu ahal izateko 3. artikuluan adierazten diren inguruabarren egiaztagiriak, eta bereziki Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko egoerari buruzkoak.

9. artikulua. Balioespen irizpideak

9.1. Proiektuak balioespen irizpide hauei jarraituz aukeratuko dira:

– Helburu teknologien egokitzapena eta emaitzak (0-40). Proiektuaren helburuak lortzeko teknologia kuantikoak erabiltzeak duen garrantzia baloratuko da, baita honako arlo hauetan emaitzak lortzeko aukerak ere: arazoak konpontzea, aplikazio berriak, zerbitzu berriak, produktu berriak, patenteak, oinarri teknologikoko enpresa berriak, Europako finantzaketa lortzeko aukerak, enplegu sorkuntza, argitalpen zientifikoak, prozesuen optimizazioa, terapia berriak, sareetan parte hartzeko aukerak, ikerketa lerro berriak edo talde berriak sortzea, edo epe labur, ertain edo luzeko beste edozein onura.

– Proiektuaren kalitatea (0-30). Honako hauek baloratuko dira: erabilitako metodologia, aurreikusitako helburuak betetzen diren, aurkeztutako lan plana proposatutako helburuetara egokitzen den eta planak izaera errealista duen, proposamenaren argitasuna eta zehaztasuna, eta haren kalitate teknikoa.

– Proiektuan lan egingo duten pertsonen profila eta kopurua (0-10). Honako hauek baloratuko dira: proiektuan lan egingo duen taldea osatzen duten pertsonen profila; doktore, goi mailako tituludunen eta beste profil batzuen kopurura, eta profilak eta esperientzia egokiak diren proposatutako lanaren helburuetarako.

– Ahalegina (0-10). Erakundeak proiektua gauzatzeko egin beharreko ahalegina baloratuko da, proiekturako aurkeztutako aurrekontua eta langile kopurua kontuan hartuta.

– Enpresaren konpromisoa trantsizio ekologikoarekin, gizarte erantzukizunarekin, euskararen sustapenarekin eta berdintasunaren sustapenarekin (0-10).

9.2. Ez zaie dirulaguntzarik emango 50 puntu baino gutxiago lortzen duten proiektuei.

10. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

10.1. Balioespen batzordeak proposatuta, beharrezko ebazpenak emango ditu organo eskudunak. Ebazpen horiek bide elektronikoen bidez jakinaraziko zaizkio eskatzaileari.

10.2. Jakinarazitako ebazpen horrek administrazio bidea agortzen du, baina aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Foru Gobernu Kontseiluari, egintza jakinarazi ondorengo egunean hasi eta hilabete igaro baino lehen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua xedatzen duenaren arabera. Bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako dagokion jurisdikzioan, egintza jakinarazi ondorengo egunean hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

11. artikulua. Emandako laguntza onartzea

11.1. Erakunde onuradunak onarpena edo, hala badagokio, uko egitea aurkeztu behar du egoitza elektronikoan, dirulaguntza ematearen jakinarazpena jaso ondorengo hamar egun baliadunetan. Besterik adierazten ez bada, laguntza isilbidez onartutzat joko da. Gerora egindako edozein uko egite, justifikazio lasterrik eta argirik gabe, ez-betetzetzat hartuko da eta zehatu ahal izango da.

11.2. Baldin eta prozeduran zehar erakunde onuradunen batek dirulaguntzari uko egiten badi, puntuazio hurrenkerako hurrengo proiektu edo jardueri dirulaguntza adjudikatzea erabaki ahalko du dirulaguntza ematen duen organoak, beste deialdi baten premiarik gabe, baldin eta hala egin badaiteke eta onuradunak uko egiteagatik nahikoa kreditu geratu bada ezetsitako eskaeratako bati, behintzat, aurre egiteko.

12. artikulua. Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea

12.1. Ebazpenean nahiz ondorengo apartatueta xedatutako betekizun eta baldintza guztiak bete ondoren likidatuko dira onetsitako dirulaguntzak.

12.2. Dirulaguntzaren lehenengo zatia, hau da, onartutako dirulaguntzaren ehuneko 50, justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordainduko da, ebazpena onartutakoan eta erakunde onuradunak 11. artikuluan aipatzen den onarpena aurkeztutakoan.

12.3. Justifikatu beharreko aurrerakin moduan egingo da dirulaguntzaren ordainketa, eta ez da ezarriko emandako funtsen berme araubiderik.

12.4. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzaren gainerako ehuneko 50a ordain dezan eta lehenengo ordainketa justifikatutzat eman dezan, onuradunak dirulaguntzaren guztizkoaren frogagiri hauek aurkeztu beharko ditu egoitza elektronikoaren bidez edo aurrez aurre, 2024ko urriaren 25era arteko epean (egun hori barne):

– Egindako jarduera guztien amaierako memoria, helburuen lorpen maila, gogobetetze maila, jarduerak egiteko egutegiaren betetze maila eta diruz lagun daitezkeen kontzeptuen desbideraketak zehaztuta.

– Kanpoko gastuen, ibilgetuko inbertsioen eta barruko gastuen koadroa, bai eta, hala badagokio, diruz lagundutako jardueren diru sarrerena edota finantzaketarena ere.

– Fakturak eta gainerako frogagiri baliokideak. Beste herrialde batzuetako erakundeek egindako fakturak itzulita egon behar dira, ingelesez egindakoak izan ezik. Faktura elektronikoak aurkeztuz gero, Factura-e eta E4ktur-en estandarretara egokitu beharko da haien formatua.

– Eskaintza hirukoitza eta, hautatutako eskaintza ekonomikoki onena ez bada, arrazoitzeko txostena (izandako benetako kanpoko gastua 15.000,00 euroko mugaraino iristen bada edo hura gainditzen badu eta eskabidean aurkeztu ez bada).

– Halakorik izanez gero, jarduerak egiteko beste laguntza batzuen eskaerak/ebazpenak, aldez aurretik aurkeztu ez badira.

– Egindako gastuen ordainketaren justifikazioa, tipologiaren arabera.

a) Kanpoko gastuaren kasuan, fakturen ordainketa justifikatzeko, dagokion banku transferentzia edo merkataritzako trafiko juridikoan pareko froga balioa duen beste agiriren bat erabili beharko da, eta ordaintzailea eta onuraduna, zenbatekoa, ordaintzeko data eta kontzeptua agertu behar dira zehaztuta.

b) Diruz lagundutako jardueri lotutako barruko gastuaren kasuan, nominak eta Gizarte Segurantzarako kotizazioak ordaindu izana eta ordutegi kostua justifikatu beharko dira, hauek erabiliz:

- Kasuan kasuko pertsonak eta jardueraren arduradunak sinatutako ordutegi parteak, egotzitako orduak egiaztatzen dituztenak.

- Urteko lanaldia, erakundearen aplikagarri den hitzarmenaren arabera.

- Dagozkion nominak eta bankuko laburpenak edo transferentzia telematikoaren aginduak. Nominak sortaka ordaintzen badira eta banku laburpenean langilearen izena zehazten ez bada, erakundeko gerentziaren idazki bat erantsi beharko da, langile horren nominaren ordainketa dagozkion sortaren barruan egin dela adierazteko.

- Kotizazioen likidazioaren zerrenda (RLC) (lehen TC1), Gizarte Segurantzaren aplikazioaren bitartez sortua, eta ordainketaren banku laburpena.

- Langileen izenen zerrenda (RNT) (lehenago TC2), Gizarte Segurantzaren aplikazioaren bitartez sortua.

- Erantzukizunpeko adierazpena, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen ereduaren arabera (<https://e-s.araba.eus>), non jaso beharko baita erantsitako fitxategiak jatorrizkoen irudi zehatza direla, jatorrizkoak erakunde eskatzailearen eskuetan daudela eta Arabako Foru Aldundiaren eskura jarriko dituela hala eskatzen zaionean.

12.5. Kanpoko profesionalek jaulkitako fakturen eta barruko gastuen kasuan, erakunde onuradunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura egin behar diren atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, justifikatu beharreko ordainketaren betebeharra onartuko da, eta Arabako Foru Aldundiaren ardura izango da ordainketa horiek egiaztatu eta dagozkion justifikazio txostena ematea, Arabatik kanpoko zerga helbideratzea duten kanpoko profesionalek egindako fakturen kasuan izan ezik. Kasu horretan, onuradunak frogatu beharko du atxikipenak ordaindu direla. Baldin eta, dirulaguntza ordaindu eta gero egiaztatzen bada ez direla sartu egin beharreko atxikipenak, dirulaguntza itzultzeko eta hari dagozkion interesak ordaintzeko eskatuko da.

12.6. Ordainketak arintzeko, unean unerako jarritako epemugak baino lehenago aurkeztu ahal izango dira eskatutako agiriak.

12.7. Epe horiek igaro eta eskatutako agiriak aurkeztu ez badira, edo aurkeztu beharreko guztia aurkeztu ez bada, dirulaguntza gutxitu edo baliogabe utziko da, kasu bakoitzaren arabera. Salbuespenez, epez kanpoko justifikazioak onar daitezke, agiriak epemugaren hurrengo hamar egunen barruan aurkezten badira, eta azkenean justifikatutako zenbatekoaren ehuneko 20ko murrizketa aplikatuko zaio dirulaguntzari.

12.8. Ordainagiriak onetsitako gastu osoaren zenbatekora iristen ez badira, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan berregokituko da, eta baliogabe utziko da dagozkion kopurua.

12.9. Ordainduko den dirulaguntzaren gutxieneko zenbatekoa 1.500,00 euro da, hura onestean bezala.

12.10. Dirulaguntza jaso duten jardueren eragiten dien gorabehera edo aldaketa oro jakinarazi behar zaio Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuari, eta hark behar diren erabakiak hartu eta erakunde onuradunari jakinaraziko dizkio. Onartutako guztirako gastua muga delarik, aldaketak onartu ahal izango dira hasiera batean diruz lagundutako jardueretan eta horiei dagozkien diru zenbatekoetan, haietakoren bat gauzatu ez izana gorabehera.

Aldaketa horiek Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren oniritzia beharko dute.

Funtsezko aldaketak eginez gero, balioespen batzordeak onartu beharko ditu.

12.11. Erakunde onuradunek gastuen justifikazioak aurkeztu ondoren, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak in situ egin ahalko ditu bisitak, diruz lagundutako jarduerak egiaztatzeko.

13. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak eta konpromisoak

13.1. Erakunde onuradunek, dirulaguntzak onartzean, deialdi honen 19. artikuluan oro har ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, bai eta honako konpromiso hauek ere:

- Diruz lagundu daitezkeen jardueretan Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako printzipio orokorrak betetzea, bereziki honako alderdi hauei dagozkienez:

hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egitea eta genero adierazleak sartzeari lagundutako jarduerak ebaluatzen irizpideetan.

– Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea diruz lagundutako proiektua gauzatzeari ondoriozko komunikazioetan, materialen edizioan eta dibulgazio jardueretan.

– Sailaren sustapenari eta finantzaketari behar bezalako publizitatea ematea dirulaguntzaren xede diren proiektuetan eta jardueretan, erakundearen irudia txertatuz, bai eta finantzaketa publikoari eta esku hartze publikoko programaren xedeari buruzko legendak ere, karteletan, material inprimatuetan, bitarteko elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan eta beste edozein euskarritan edo komunikabideetan egindako aipamenetan.

13.2. Laguntza onartzeak esan nahi du erakunde onuradunak nahitaez eman behar diola Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailari proiektuari buruzko informazioa eta komunikazio helburuekin erabiltzeko baimena, hori guztia baliabide publikoen erabilera gardentasuna sustatzeko helburuarekin.

13.3. Laguntza onartzeak berekin dakar Arabako Foru Aldundiari baimena ematea dirulaguntzari buruzko informazioa sartzeko lege dagozkion datu baseetan edo programa batera finantzatu ahal izateko aplikatu daitezkeen datu baseetan.

13.4. Ondasun inbentariagarriak edo beste aktibo batzuk, deialdi honetan araututako dirulaguntzen bidez osorik edo zati batean eskuratu badira, dirulaguntza eman zen helburu zehazterako erabili beharko dira, gutxienez 5 urtez.

Aurreko paragrafoan aipatutako helburu betebeharra ez betetzea dirulaguntza itzultzeko arrazoi izango da, eta deialdi honen 18. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

14. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Oinarri arautzaileak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuak hamalagarren oinarrian ezarritakoa aplikatzeko izateaz gainera, diruz lagundutako jarduerak jasotzeko gainerako laguntzak, edozein dela ere haien izaera eta ematen dituen organoa edo administrazioa, bateragarriak izango dira deialdi honetatik datozenekin, diruz lagundutako gastuaren ehuneko 100eraino iritsi arte. Salbuespen izango dira Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzarenak ez diren Arabako Foru Aldundiaren beste administrazio unitate batzuek emandakoak, bateraezinak izango baitira.

15. artikulua. Garapena

Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuari eskumena ematen zaio deialdi hau garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro emateko. Era berean, ahalmena ematen zaio deialdian ezarritako baldintzak ez betetzeagatik bidezkoak diren itzulketak agintzeko.

16. artikulua. Deslokalizazioa

Enpresen deslokalizazioa gertatzen dela ulertuko da Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 43. artikuluan ezarritako inguruabarrak gertatzen direnean.

17. artikulua. Publizitatea eta komunikazioa

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduerak zabaltzeko ekintzarik eginez gero, Arabako Foru Aldundiak emandako finantzaketa aipatu beharko du zabalkunderako baliatutako bitarteko eta materialetan, aldundiak irudi korporatiboaren inguruan ezartzen dituen argibideetara egokituta.

18. artikulua. Ez-betetzeak eta itzulketak

18.1. Erakunde onuradunak hitzarmen honetan ezarritako edozein betekizun edo betebeharrak betetzen ez badu, dirulaguntzak jasotzeko eskubide osoa edo zati bat galduko du. Horrez gainera, dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli eta dagozkion berandutze interesak ordaindu beharko ditu.

18.2. Diruz lagundutako proiektua ez bada jasotakoarekin bat etorritik gauzatzen edo partzialki gauzatzen, eta sailari ez bazaio horren arrazoia jakinarazten, zehapen prozedura hasi ahal izango da. Prozedura horretan, proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira, proiektu osoari dagokionez egindako lanen arabera eta jasotako zenbatekoen arabera.

18.3. Ez-betetzeak mailakatzeko, proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira. Irizpide horiek instrukzio organoak balioetsiko ditu, proiektu osoari dagokionez egindako lanen arabera eta jasotako zenbatekoen arabera.

18.4. Borondatezko itzulketatzat hartzen da onuradunak dirulaguntza ematen duen organoaren alde aurreko errekerimendurik gabe egiten duena. Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak idazki bat bidaliko du, itzuli beharreko zenbatekoa gehi berandutze interesengatik dagozkion zenbatekoa ordaintzeko eskatzeko.

19. artikulua. Araubide juridikoa

Deialdi honetan ezarritako prozedura Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileetan ezarritakoaren mende dago, hauetan xedatutakoaren aurka ez badago: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, nahiz dirulaguntzei buruzko ondorengo gainerako xedapenak.